



Sagar-mota klasikoak aukeratu dituzte. Honezkero jende guztiak dakien bezala, Diputazioak badu Hondarribian mintegi bat Euskal Herri bertako sagar-arbolak saltzeko baserritarrei. 1983 urtea ezkerro da martxan plan hau eta aurtan ere makina bat arbola saldu da. Sagardotarako sagar motak dira eta urte guztiotan klase klasikoak aukeratu izan dituzte gehienbat baserritarrek. Gehien saldu direnak hauexek dira: Errezila, Goikoetxea, Manttoni, Mozolua, Patzolua, Txalaka eta Urtebi. Bestetik, esan beharra dago aurtengo urtean jendeak gehiago erosi duela arbola *enano*-etatik, *pie franco* direlakoetatik baino. Lehenengo aldia da holakorik gertatzen dela. Arbola txikiagoak izan arren, proportzioan gehiago ematen dute, ugariago aldatzen bait daitezke. Seinale ona, Diputazioko teknikarrien ustez; baserritarrak ikasten ari diren seinale.

D.V. 5 de Abril 1989

Felix Ibañeta